

ERREGEAK ETA EUZKADI

III SANTXO

Egun gaitza izan zan Euskalerrarentzat, antziña artan naparrei Iruña'ren eta Jaka'ren inguruko lurren artean, oiñarriztat Leire'ko Lekaidetxe edo monasterioa zutela, Erreiñu bat sortu, ta erreiñu orren gaiñean Errege bat ipintzea gogoratu zitzaien eguna. Ori IX mendean gertatu zan. Noiz ziur ez dakigu, baiñan 829'an ENEKO ARITZA Iruña'ko Errege zan.

Lenengo Erregea. Baiñan ez ziurtasun osoz, Iruña'ko lenen Errege bezala Piña'ko Yondoniane'ren Lekaidetxe-ko bi dokumentutan, GARTZIA JIMENORENA agertzen bait da lenen Errege: "sub regimine Garsia Scemenonis rege de Pampilona" 825'ko dokumentuan, eta "ego Garsia Scemenonis rex Pampilonensium" urte bereko beste batean.

Egia da bigarren au apokrifoa dala, dion urtean ez baiña 400 urte geroago idatzia, baiñan aurreneko beste ura egiazkoa da, zintzoa, sekulan apokrifoa izan daitekealakoz kezkarik jaio gabea.

Albiste illunak danoiek guretzako; Erregeak ez diote bâ beiñere Euzkadi'ri on aundirik egin. Gaitzik ez egitea izan bait da Errege batek egin izan dion onik aundiena.

Ori bera esan daiteke Bizkai'ko Jaunetaz.

Azkeneko lau urtea auetan III SANTXO "NAGUSIA" ari zaigu goratarre ta onespen aundiak jasotzen. Ez noski batere arrazoirik gabe. Uste danez dirala milla urte, Kristo jaio osteko millagarren urtean ainzuzen, ots, 1000'ean, (agian 1004'ean) jantzi bait zuan Iruña'ko Erregeen buruntza edo koroia. Ainzuzen oraintxe bertan 2004'ko ekainill onen 18'an irakurri ditut nik goratarre-sorta apaiñ batzuk, egun ortako "DEIA"n.

Eta goratarregille guztiengan oiturazkoa dan lez, bizi-rik zebillenean izan zan baiño ederragoa aurkezten digute danek Errege zar ori. Ondo irabaziak omen ditu aintzake-ta guzti oiek Euskalerriko erregeetan garaiena ("el más encumbrado") bera izan omen zalako; eta orduango EUSKALERRI OSOA bere agintaritzapean LATERRI edo ESTADU bat egin omen zualako; eta, orregaitik ainzuzen, bere aldi artako euskaldunek AUNDIA izendatu omen zutelako.

Ori guztia ¿egia ote da?

Ez.

Iru arrazoi oietatik, aurrenekoa egiazkoa da; beste biak, nere ustez beintzat, ez. Azter ditzagun irurak batera:

Aurrenekoa: Bere garaitasuna, "alteza" gaztelera: Egia da Iruña'ko eta, zer esanik ez, ondorengo Naparroa'ko Erregeen artean aberatsena, indartsuena eta ospetsuena bera izan dala, baiñan argi azaldurik utziko dugun lez, ez bere Erreiñuaren onerako, bere buruaren eta bere

sendiaren onerako baizik. Ez da noski arritzeko gauza. Ori errege guztien jardunkera izan bait da.

Euskalerrian Errege bikaiñak izan dira: II Santxo "Abarka", VI Santxo "Jakintsua", VII Santxo "Indartsua", III Carlos "Egokia". Alare, betez ere edestilari españarrentzat, danetan bikaiñena, III SANTXO "NAGUSIA".

Almanzor'ekin borrokan jardun bear izan zuten II SANTXO ABARKA, III'aren aitonak eta III GARTZIA SANTXORENA aitak. Orduantxe bete ziran milla urte III ABD EL RAHMAN'ek Kordoba'n bere burua KALIFA izendatu zuala, eta orduantxe, ALMANZOR buruzagi zuala, iñoiz baiño indartsuago zegoan kalifatoa. Alata-gutziz Erreiñu txikia, baina sendoa ta yarea utzi zien III GARTZIA'k III SANTXO bere semeari.

Egia da baitare, aitonak, SANTXO ABARKA'K, pake lortzearen, ALMANZOR'en sendiko egin zuala gure III Santxo, bere alaba, Euskalerriko printzesa, III SANTXO orrek izeba zuana, emaztetzat buruzagi musulman ari eman ziolako. Ezkontza orren bidez, Almanzor'en illoba biurtu zan gure SANTXO. Laister gaiñera eman zien printzes arek ALMANZOR senar musulmanari seme bat eta III SANTXO illoba kristauari lengusu bat, kronikalari kristauek "SANTXOL" izendatu zutena. Biak, ordea, ALMANZOR osaba eta SANTXOL lengusua, il zitzaizkion laister. Eta almanzordarrek illik, bereala, 1031'an ezereztu, bait zan kalifatoa, bere, -Iruña'ko III SANTXO-, biurtu zan Espaiñeta'ko Erregerik indartsuena.

Bereak zituan Araba, Araba'ren zati izan ziran Bureba ta Errioxa'ren sarkaldeko Erdia, Bizkaia, Gipuzkoa, Naparroa'ren iparreko Erdi menditsua ta Jazetania. ¿Maite ote zituan berak lurralde oiek? Bai, baiña itzaia idiak bezala. Bere onturrerako bearrezkoak zitualako.

Esan dugun lez, Almanzordarrak illik, kalifato guzia TAIFA, edo Errege Koxkorren talde bat biurturik gelditu izateaz, baliatuz, bere Erreiñua zabaltzeari eman zion III SANTXO'K.

Jazetani'ren ertzean, ARBEGUREN ("Superarbe), GORTZARAN ("Ribagorza") eta Lerida'ren Iparrean PALLARS, bere-egin zituan.

Gaztelerriko GARTZIA SANTXORENA kontearen arrebarekin ezkonduko zegoalako, bere eskuatara etorri zitzaion lurralde ura, kondea erailla izan zanean. Eta andik LEON'GO Erreiñuari ekin zion eta, II BERMUDO garaiturik, bere agintaritzapean artu zuan guzia, Galizi izan ezik, or gorde bait zuan II BERMUDO'K bere burua.

- Lur asko bildu zuan, baike, bere eskuetara III SANTXO'K. Baiñan ez da baliozkoa bera miresteko bere

zaleek darabilzkiten arrazoietatik irugarrena, ez bait zuten bere denborakoek “AUNDIA” orregaitik izendatu. Itz orren zentzua ez da Euskalerriaren Erdiko Euskerak ematen diona, “GALANTA”, Sarkaldekoak, ots gaurko Bizkaierak oraindik ematen diona baizik: “ZARRA”, eta III SANTXO-ren billoba, IV SANTXO aski azia zan garaiean sortua da, bi SANTXO aiek bereizteko: “-SANTXO NAGUSIA”, “SANTXO GAZTEA”.

Zentzu ori izan zuan Erromantzez ere: “El Mayor”, “El Más Viejo”.

– Ezta egiazkoa, eztare, III SANTXO “NAGUSIA”REN eskuetan lurralde guzti aiek Laterri bat osotzen zutela.

Euskalerria ez da sekulan Laterri bat izan. Euskalerri beti ANFIKTIONI BAT izan da. Baiñan gaur, guretzat, orrek ez du ajolik-eta, pentsa dezagun ala izan zala: Laterri bat izan zala orduan Euskalerria, oraindik ikaragarriagoa agertzen bait da III SANTXO “NAGUSIA”AK, bere eskuetan Laterri bat zuan Euskalerriari egin zion gaiztakeria: lau pusketan zatitu. Iñork sekulan Euskadi’ri egin dion gaitzik madarikagarriena.

Lau seme izan zituan: Zarrenari, Gartzia’ri, gaurko Euskalerri au utzi zion orduan Araba’reinak izan berriak ziran Najerilla ibaietik sartalderako Errioxa’rekin eta Bureba osoarekin.

Bigarrenari, Fernando’ri, errege bihurturik, Gaztekerria, orduan oraindik zati aundian euskalduna zana.

Irugarrenari, Gontzalo’ri, Arbegain eta Gortzaaran’go konterriak.

Arrezkero beti zatiturik bizitu zaigu, orduan bein betirako alkaturik gelditu zitekean Euskalerria. Badakit zer esango didazuten, baiñan pentsa eidazute, arren, nik ere badakitela zer esaten ari naizen. Ez dut gure III SANTXO “NAGUSIA” inpernuetara jurti nai. Badakit Errege guztiak izan dirala berdiñak. Badakit errua ez dala Erregeena, EREGETZARENA baizik. Orregaitik naiz EREGETZAREN etsai.

Latiegi ta Eraso tar Bixente

AFRIKA

Afrika arrigarria da eta ango barriak agertu nai dauzueguz 54 lan labor oneitan.

Esan dagidan, bein eta betiko,barri oneik nondik artuak diran, ez guztiak baiña bai geienak.

15 liburu ondo apaindu eta irarrietan agertu zan Margo Ederdun Entziklopedia, Lekuona’tar Manuel’en ardura-pean, 1968n. urtean asita eta entziklopedi onen 2n. liburua da nik artu dodana. AFRIKA dau izena eta Arregi’tar Rikardo’k euskeratua da. Nik bizkaieraz eta laburpenak agertuko dodaz.

Ez dakit entziklopedia au gaur saltzen dan baiña lan ederra da.

Afrika pizka bat ezagutzeko irakurri egizuz lantxu oneik. Mundu barri bat aurkituko dozu.

IBILGAILLUAK

Ez dago Afrika’n, toki askotan, beste biderik abereak egindako bide-zidorrak baiña. Uri aundietan be biderik geienak asfalto bako bideak dira.

Tren-biderik geienak be oso zarrak dira.

Orain milla urte eroan ebezan ara Dromedarioak Asia’tik, eta karabanak dira basa-mortuan bidelariak. Onune edo oasietan kilo-kolo dabiltz autobusak. Sahara’n automobilla arriskugarria da, aldagairik ez dagoalako. Eiztariak ilda be aurkitu dabez oraintsu.

Egoalderako txirrindua, bizikletea, da onena, eta senar-emazte eta umeak baten ibiltzen dira.

Emakumeak oiñez joaten dira urriñeko azoketara.

Ibaiak dira ibilbide onak basoetan, gaur lurrundun motorrakaz dabiltz ontziak. Baltsak eta kanoak berta-koentzat izaten dira. Baiña gaur egazkiña dabil ugeri: Sei asteko bidea ordu bitan egiten da.. Garrantzidun erri guztiak daukez euren egazkin-zelaiak

MADAGASKAR

Indiko itxasoaren ondoan dago ugarte aundi au. Afrika’tik 400 km.´ra.

Ango biztanleak ez dauke senidetasunik afrikatarraz, ez eurak eta ez euren abereak. Polinesia ta Melanesia’gaz dauke aidetasun geiago, urrin egon arren. Oiturrak bardiñak eta izkuntza be antzekoa..

Aunditasunez munduko laugarren ugarte da. Dina-marka’tarrak eta fratzetarrak euki dabe menpean.

1958n. urtean lortu eban askatasuna, Tananaribe uriburu dauala.

Munduko lorarik ederrenak daukez, esaterako ustarkuaren margo guztiak dauzan orkidea.

Europa’rako zura saltzen dabe ugari.

Erreka jauzkariak daukez mendietan beera. Erreketan kokodrilloak dagoz asko eta eurak dira ango pizti afrikatar bakarrak.

Abere-mota bi, tanrek eta maki, dagoz asko. Tanrek edesti-aurreko abereen antzekoa da eta makia katu-antzeko azagarria edo lukia. Naru ona ta koloretsua dauka eta munduan beste iñon ez dago.

Nekasariak dira: Jateko bear daben arroza, mandioka, barazkiak, bedarra ugari, konkordun idiak eta ardiak ugari dira.

Olazar’tar Martin’ek